

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO
BILERA**

2018ko otsailaren 23a

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hemezortzigarren urteko otsailaren 23an, ortzirala, ilunabarreko zazpitan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Maria Victoria Gortari Aldave, Esteban Irazoqui Irazoqui, Jose Maria Portu Ochoteco, Esteban Echeveste Apezteguia, Maider Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains eta Severiano Txoperena Matxikote jaun-andreak.

Mattin Etxabide Gartzia dagokionez, bilkuraren gai ordenaren bigarren puntuan sartzen da.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa egingen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da eta, deialdiari jarraituz, honako gai hauei buruz aritu dira:

1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
AYUNTAMIENTO**

23 de febrero de 2018

En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes 23 de febrero del año dos mil dieciocho, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco, don Esteban Echeveste Apezteguía, doña Maider Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains y don Severiano Txoperena Matxikote.

En cuanto al concejal don Mattin Etxabide Gartzia, se incorpora a la sesión durante el transcurso del segundo punto del orden del día.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

1 - APROBACIÓN DEL ACTA

The bottom of the page contains several handwritten signatures and stamps. On the left, there are several overlapping signatures in black ink. In the center, there is a large, stylized signature. On the right, there are more signatures, including one that appears to be a stamp or official signature. The text '1' is written below the central signature.

AKTAREN ONESPENA

Osoko Bilkurak, aho batez, azken bilkurako akta onartu du, 2018ko urtarrilaren 26koa.

2 - JOXE TELLETXEA OTXOTEKOK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA

Gai hau jorratzen ari diren bitartean Mattin Etxabide Gartzia sartzen da bilerara.

2018ko urtarrilaren 25ean aurkezturiko eskaera aztertuta (220. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Joxe Telletxea Otxoteko jaunak eginiko eskaera, alertze, intsinis pinuren eta akazien matarrasa egiteko Lantxarako iturria parajea (Frain auzoa. Moztu behar den azalera 1,80 hektareatakoa da. Katastroko 3 poligonoko 403 partzeletako S azpipartzeko zatiari eta J azpipartzelai dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2018/7).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean

CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 26 de enero de 2018.

2 - APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR JOXE TELLETXEA OTXOTEKO

Mientras es debatido el asunto se incorpora a la sesión el concejal don Mattin Etxabide Gartzia.




Examinada la instancia presentada con fecha 25 de enero de 2018 (entrada nº 220 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Joxe Telletxea Otxoteko para realizar una matarrasa de alerce, pino insignis y acacias en el paraje de fuente de Lantxara (barrio de Frain). La superficie de corta es de 1,80 hectáreas. Corresponde a la subparcela J y a parte de la subparcela S de la parcela 403 del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/7).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas



utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea, lurzatia komunala agertzen dela sustatzaileak berak onartu eta sinatutako hitzarmen transakzionalaren arabera, beraz Udalari kanon bat ordaindu beharko diola egingo den balorazioaren %10ekoa.

3 - 18 E.U.-AREN HIRI-JARDUKETAKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONESPENA (ALKAIAGA)

2017ko maiatzaren 31an jaso zen Udaleko Erregistro Orokorrean (1.759. sarrera) Hiri-jarduketako Plan Berezia (HJPB), Miguel Angel Taberna Irazoki jaunak eta Manuel José Taberna Irazoqui jaunak sustatua, Alkaiagako Kale Nagusia 16an dagoen finkarako. Egilea Arantxa Aramburu Eguizabal arkitekto andrea da. Hirigintzako Udal Planaren U.E. 18ari dagokio. Aurkeztutako dokumentuaren arabera, unitate hau aktuazio zuzeneko bi partzeletan banatuta geldituko da. finkatutako eraikuntza lursailari 28 Unitate Asistematikoa deituko zaio (U.A 28). Bertzea 29 U.A izango da. Unitate bakoitzean gehienez 4 etxebizitza eraiki ahal izatea aurreikusita dago.

2017ko irailaren 26ko Alkatezaren 368/2017 ebazpenak hasierako onarpena eman zion

condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que la finca figura como comunal conforme al convenio transaccional de bienes comunal suscrito y que, conforme a lo dispuesto en él, deberá abonar al Ayuntamiento un canon del 10% de la tasación efectuada.

3 - APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PLAN ESPECIAL DE ACTUACIÓN URBANA DE LA U.E. 18 (ALKAIAGA)

El día 31 de mayo de 2017 se recibió en el Registro General del Ayuntamiento (entrada nº 1.759) el Plan Especial de Actuación Urbana (PEAU) promovido por don Miguel Angel Taberna Irazoki y don Manuel José Taberna Irazoqui, para la finca de Alkaiaga Kale Nagusia 16. Su autor es la arquitecto doña Arantxa Aramburu Eguizabal. Corresponde a la U.E. 18 del Plan Municipal de urbanismo. Conforme al documento presentado, esta unidad quedará dividida en dos parcelas de actuación directa. La parcela de edificación consolidada pasará a denominarse Unidad Asistemática U.A. 28. La otra será la U.A. 29. Está previsto que en cada una de estas unidades puedan construirse hasta un máximo de 4 viviendas.

La Resolución de la Alcaldía nº 368/2017, de 26 de septiembre de 2017, aprobó inicialmente

HJPB-ari.

Abenduaren 20ko, Lurrealdearen antolamendua eta Hirigintzari buruzko, 35/2002 Foru Legearen 74.1.a) artikulua ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean ikusgai egon da hilabetez honako toki hauetan iragarritako ediktuen bidez: Urriaren 10ean, *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkarietan, eta 197. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2017ko urriaren 11koan.

Epe horretan bi alegazio aurkeztu ziren, Arantxa Aramburu arkitekto andreak eginak, Taberna anaien ordezkari bezela (urriaren 30eko 3.206.sarrera eta azaroaren 13ko 3.351.sarrera). Azken honetan 89 m² uztea begiesten zen partzelaren hegoaldean, iparraldekoaren ordez, hasiera batean aurreikusita zegoen bezala.

Horri buruz, Lesakako Udaleko hilabete horren 15ean eginiko Hirigintza batzordeko bileran, ikusi zen, komenigarria izan zitekeela zonaldearen antolamenduarentzat, lagapena egitea partzelaren hegoaldean. Baina gogoratzen da, oinezko eta bidesareari utzi beharreko azalera 105 m²koa dela, Udal Planaren Araudi Urbanistiko Partikularrak E.U. 18 Exekuzio Unitaterako ezartzen duen moduan, 1999ko maiatzaren 10eko 58. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Gehitzen du, Batzordeak ez duela aldeko erabakirik hartuko aurrekoa errespetatzen ez duen proposamenetan.

Horregatik sustatzaileek azaroaren 21ean dokumentu bat aurkeztu zuten (3.426. sarrera

el PEAU.

Conforme a lo dispuesto por el artículo 74.1.a) de la Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el expediente ha sido sometido a información pública, durante un mes, mediante edictos publicados en el Diario de Navarra y Diario de Noticias el día 10 de octubre y en el Boletín Oficial de Navarra nº 197, 11 de octubre de 2017.

Durante ese periodo fueron presentadas dos alegaciones, suscritas por la arquitecta doña Arantxa Aramburu, en representación de los hermanos Taberna (entradas nº 3.206, de 30 de octubre y nº 3.351, de 13 de noviembre). En esta última se contemplaba la cesión de 89 m² en la zona sur de la parcela, en vez de en la norte, como estaba inicialmente previsto.

Al respecto, la Comisión de Urbanismo del Ayuntamiento de Lesaka, en reunión celebrada el día 15 de ese mes, estimó que el realizar la cesión en el sur de la parcela podría ser también conveniente para la ordenación de la zona. Pero recuerda que la superficie a ceder para la red viaria y peatonal es de 105 m², tal y como establece para la Unidad de Ejecución U.E. 18 la Normativa Urbanística Particular del Plan Municipal de urbanismo, publicada en el Boletín Oficial de Navarra nº 58, de 10 de mayo de 1999. Añade que la Comisión no informará favorablemente ninguna propuesta que no respete lo anterior.

Por ello los promotores presentaron con fecha 21 de noviembre (entrada nº 3.426 en el

Erregistro Orokorrean) bertan 105 m² horiek ematera konprometitzen direlarik, dagokion planoak aurkeztuz.

Nasuvinsak aldeko txostena egin zuen (65. Sarrera, 2018ko urtarrilaren 10ekoa).

Hori guztia ezagututa, sustatzaileek H.J. P.B.-aren testu bategina ekarri dute, otsailaren 2ko datarekin (3056. Sarrera). Otsailaren 13an jasotako idatzi baten bidez (399. Sarrera), Nasuvinsak adierazten du dokumentua zuzena dela eta beraz ekin dakioke bere behin betiko onepenari

Hori guztia aztertu ondotik, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako hau erabaki du:

1º) Behin betikoz onartzea Hiri-Jarduketa Bereziko Planaren testu bategina, Miguel Angel Taberna Irazoki eta Manuel José Taberna Irazoquik sustatua, Alkaiaga Kale Nagusia 16. finkarako (18 E.U.). Dokumentua Arantxa Aramburu Eguizabal arkitekto andreak idatzi du (305. Sarrera, 2018ko otsailaren 2ko 305. Sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean).

2º) 18. E.U.-rako Hirigintzako Udal Planak ezarritakoaren arabera, 105 m² utzi beharko da erabilera-espazioetarako eta jabari publikoetarako.

3º) H.J.P.B.-ren ale bat bidaltzea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari, emandako informeen eta Herritarren Parte-hartze Planaren tramitazioari buruzko kopia konpultsatuekin batera.

Registro General) un documento donde se comprometen a ceder los 105 m², aportando el correspondiente plano.

Nasuvinsa, emitió un informe favorable (entrada nº 65, de 10 de enero de 2018).



En base a todo ello, los promotores han aportado un texto refundido del P.E.A.U. con fecha 2 de febrero (entrada nº 305). Mediante un escrito recibido el día 13 de febrero (entrada nº 399), Nasuvinsa indica que el documento es correcto, por lo que puede procederse a su aprobación definitiva.

A la vista de todo ello el Pleno con el voto unánime de sus miembros, acuerda:

1º) Aprobar definitivamente el texto refundido del Plan Especial de Actuación Urbana promovido por don Miguel Angel Taberna Irazoki y don Manuel José Taberna Irazoqui, para la finca de Alkaiaga Kale Nagusia nº 16 (U.E. 18). El documento ha sido redactado por la arquitecta doña Arantxa Aramburu Eguizabal (entrada nº 305, de fecha 02/02/2018, en el Registro General del Ayuntamiento).

2º) Conforme a lo establecido por el Plan Municipal de urbanismo para la U.E. 18, deberá hacerse una cesión de 105 m² con destino a espacios de uso y dominio público.

3º) Enviar al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra un ejemplar del Plan, junto con fotocopias compulsadas de los informes emitidos y de la tramitación relativa al Plan de Participación Ciudadana.



4º) Behin betiko onespeneren iragarkia baita H.J.P.B bera Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta akordio hau sustatzaileei jakinaraztea.

4 - JACINTO OCHOTECO ALZUGARAY-EK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA

2018ko otsailaren 13an aurkezturiko eskaera aztertuta (395. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Jacinto Ochoteco Alzugaray jaunak eginiko eskaera, oihan aprobetxamendua egiteko, haritz amerikarraren matarrasa egiteko eta akazia batzuk botatzeko, Biurgaray parajea. Moztu behar den azalera 2.053 m²-koa da. Katastroko 6 poligonoko 1 partzelaren g azpipartzeko zatiari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia: Oihapart/2018/10).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko du, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio.

Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio haiek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duten

4º) Que se publiquen tanto el anuncio de la aprobación definitiva como el propio P.E.A.U. en el Boletín Oficial de Navarra, notificando el presente acuerdo a los promotores.

4 - APROVECHAMIENTO FORESTAL SOLICITADO POR JACINTO OCHOTECO ALZUGARAY

Examinada la instancia presentada con fecha 13 de febrero de 2018 (entrada nº 395 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Jacinto Ochoteco Alzugaray para realizar una matarrasa de roble americano y algunas acacias en el paraje de Biurgaray. La superficie de corta es de 2.053 m². Corresponde a parte de la subparcela G de la parcela 1 del polígono 6 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2018/10).

2º) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicárselo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza establecida, cuyo importe le será comunicado.

Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se le dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo de los

jabeen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka hori komunal ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

5 - TORTURAREN KONTRAKO AKORDIO PROPOSAMENA

Espedientean akordio proposamena dago, 2018ko otsailaren 16an EH Bildu udal taldeak aurkeztua (463. Sarrera zenbakia Udaleko Erregistro Orokorrean) eta bertan Igor Portu eta Mattin Sarasola-ri buruz ari direlarik. Testuak horrela dio:

“1º) Lesakako Udalak tortura kasuak ikertzeko eta azaleratzeko beharra agertzen du eta tortura pairatu duten herritarrei elkartasuna eta babesa azaltzen die. Era berean, egia, aitortza eta erreparaziorako daukaten eskubidean laguntzeko bere prestutasua agertzen du Udal honek.

2º) Lesakako Udalak Nafar Gobernuari eskatzen dio torturaren gaia azaleratzen eta biktimak erreparatzen laguntzeko bere esku dagoen guztia egin dezan, eta bide horretan egiten ari den eta egingen dituen urratsei babesa ematen die.

3º) Lesakako Udalak Espainiar Estatuari, behingoagatik tortura eta tratu txarren kasuetan, eta beriziki Igor Portu eta Mattin Sarasola lesakarren,

propietarios del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

3º) Comunicarle que la finca figura como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de la misma.





5 - PROPUESTA DE ACUERDO CONTRA LA TORTURA

Consta en el expediente la propuesta de acuerdo presentada con fecha 16 de febrero de 2018 (entrada nº 463 en el Registro del Ayuntamiento) por el grupo municipal de EH Bildu y que hace referencia a los vecinos de la localidad Igor Portu y Mattin Sarasola. El texto dice así:

“1º) El Ayuntamiento de Lesaka estima la necesidad de investigar y poner de manifiesto los casos de tortura y expresa la solidaridad y amparo a los vecinos que han padecido tortura. Del mismo modo, este Ayuntamiento manifiesta su disposición a ayudar al derecho que tienen de verdad, reconocimiento y reparación.

2º) El Ayuntamiento de Lesaka pide al Gobierno de Navarra que ponga de manifiesto el tema de la tortura y que haga todo lo que esté en su mano para ayudar a restituir a las víctimas y en esa ruta da su apoyo a los pasos que ha dado y está dando.

3º) El Ayuntamiento de Lesaka solicita al Estado Español que, por una vez en los casos de torturas y malos tratos y especialmente en el caso



kasuan izandako ardua onartzea eskatzen dio, eta aldi berean, gaia azaleratzen eta biktimak erreparatzen laguntzeko bere esku dagoen guztia egin dezala. Era berean mekanismoak martxan jarri ditzala holakorik berriz ere gerta ez dadin. Hartara, torturak dokumentatzeko egitasmoaren garrantzia eta beharra azpimarratzen du.

4º) Lesakako Udalak, erabaki hauen berri emango die, Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari, Lesakako herritarrei ere jakinaraziko dielarik”.

Osoko Bilkurak aho batez onartzen du proposatutakoa, eta, beraz, aipatutako akordioak hartzen ditu.

9 - ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA

Zinegotzi guzietan pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkutatik gaur arte Alkateak emaniko ebazpenen zerrenda. Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udaltzaren eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoran

de los lesakarras Igor Portu y Mattin Sarasola, reconozca las torturas producidas y, al mismo tiempo, haga todo lo que esté en su mano para poner de manifiesto el asunto y ayudar a restituir a las víctimas. Del mismo modo que ponga en marcha mecanismos para que no suceda nuevamente algo así. Por ello subraya la importancia y necesidad del plan para documentar las torturas.

4º) El Ayuntamiento de Lesaka pondrá estos acuerdos en conocimiento del Gobierno de Navarra y del Gobierno de España, haciéndolos saber también a los vecinos de Lesaka”.

El Pleno aprueba la propuesta por unanimidad y, en consecuencia, adopta los citados acuerdos.

6 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy. A los que no tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día

A collection of handwritten signatures and initials in black ink, located at the bottom of the page. Some are large and stylized, while others are smaller and more legible. They appear to be official signatures of council members or officials.

gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuari sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

10 - OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK

Ez da izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta bost minutu direnean, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

10 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Siendo las diecinueve horas y cinco minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.

The bottom of the page contains several handwritten signatures and scribbles. On the left, there is a signature that appears to be 'H'. In the center, there is a large, complex scribble. To the right, there are several more signatures, some of which are crossed out with a large 'X'. The signatures are written in black ink on a white background.